


Ipuin kontalaria



Nire herrialdean, *matue* garrantzitsuak dauzkagu. Matueak ipuin-kontalariak dira: kontakizunen bidez, gure arbasoen ohituren berri ematen digute. Irudimenaz baliatuz, hegan egiten dugu, eta gauza garrantzitsu asko ikasten ditugu. Matueak arduratzen dira gure ohiturak eta kultura belaunaldiz belaunaldi erakustez.

Denek errespetatzen dute haien lana. Guraso askok, gainera, seme-alaba bat izaten dutenean, matue bati deitzen diote, haurraren izena aukera dezan. Izan ere, gure herrialdean esaten dugunaren arabera, gure izenak gure patua erabakitzen du.

Ni bizi naizen lekuan, familia asko sakabanatuta bizi dira, oihanean, Sukanne deitutako auzo handi baten inguruan. Sukannen daude eskola eta abar. Herri horretan ospatzen ditugu ekitaldiak. Han, etxe guztiak biribilean jarrita daude elkarren ondoan, eta, gauero-gauero, su handi bat pizten dugu erdian. Suaren inguruan, batzuek jan egiten dute, beste batzuek ehizarako lanabesak prestatu, eta beste batzuek hitz egin.

Duela urte asko, Yara izeneko neska bat bizi zen Sukannen. Yara izenak «gaua agurtzen duen txoria» esan nahi du; izan ere, Yara egunsentian jaio zen, txoria kantuan hasten den unean.

Yara eskolara joaten zen. Baina hori, garai hartan, ez zen batere ohikoa. Neska gehienak ez ziren eskolara joaten; etxean gelditzen ziren, amari laguntzen, anai-arrebak zaintzen eta etxeko lanak egiten.

Yarari gehien gustatzen zitzaion unea, irakasleak, goizaren bukaera aldera, zuhaitz handi baten azpian ipuin bat kontatzen zienekoa zen. Horregatik, Yara adi-adi egoten zen idazten eta irakurtzen ikasteko klaseetan, egunen batean berak ere bere ipuinak idatzi eta kontatu ahal izateko. Berak askotan kontatzen zizkien ipuinak neska-mutiltxikieietabereanai-arrebei. EtadenaktxunditutaegotenzirenYararenipuinak entzuten.



Behin, irakasleak, zuhaitzaren azpian ipuina kontatu eta gero, hauxe esan zien neska-mutilei:

- Gazteok, hurbiltzen ari da Matueen Gaua. Jakin nahiko nuke zuetako zein aurkeztuko zareten aurten. Nahi izanez gero, eskolan bertan landuko ditugu ipuinak, guztion artean.

Matueen Gaua bi urtean behin ospatzen da, eta oso ospakizun garrantzitsua da gure artean.

Aipatu dizuet zeinen garrantzitsuak diren matueak gure herrialdean. Horregatik, txikitandik ikasi behar da ipuinak kontatzen. Egun horretan, gure herrialdeko matue guztiak etortzen dira Sukanneran. Egun osoa ipuinak eta istorioak kontatzen ematen dute, eta, iluntzean, sua piztu, eta umeei ematen diete ipuin-kontalari izateko aukera.

Matueen Gauean, eginkizun garrantzitsu hori betetzeko egokiak diren haurrak aukeratzen dituzte. Gainera, arranoaren espiritua duen haurra zein den jakiteko aukera ere ematen du. Gure ustez, pertsona guztiok daukagu animalia baten espiritua. Baina, espirtu guztien artean bereziena arranoaren espiritua da, hegan egiteko gaitasuna duelako, eta, goitik, oihanaren bihotza ikus dezakeelako.

- Ipuinak kontatzen aritu nahi dutenek, altxa dezatela eskua –esan zuen maisuak.

Denek elkarri begiratu zioten, urduri. Ez zen batere erraza parte hartzeko erabakia hartzea!

Yarak, ordea, ez zeukan inolako zalantzarik, eta berehala altxatu zuen eskua. Irribarrez zegoen, oso alai, eta begiek, pozaren pozez, distira egiten zioten.

Baina, harrigarria bazen ere, bere ikaskide guztiak barrez hasi ziren, eta maisuak hauxe esan zion:

- Yara, neskek ez dituzte ipuinak kontatzen. Mutilek bakarrik konta ditzakete. Haiek bakarrik daramate barruan oihaneko animalien espiritua. Espiritu horiek ez lirateke inoiz emakume baten ariman sartuko. Neskak lurreko espirtuekin zaudete lotuta, etxeko lanetan laguntzeko.
- Baina, maisu, niri asko gustatzen zait ipuinak kontatzea. Gauero kontatzen ditut, eta parte hartu nahiko nuke.
- Nahikoa da, Yara. Ezetz esan dizut. Ezin duzu. Gainera, gure tradizioak argi eta garbi esaten du gzonek bakarrik dutela arranoaren espiritua. Gzonek bakarrik dute gure kultura ezagutarazteko jakinduria.

Maisuak emandako erantzunak edonor konbentzituko zuen, baina Yarak ez zuen amore eman. Hainbat egunez, behin eta berriro erregutu zion maisuari parte hartzen uzteko, baina alferrik:

- Entzun, Yara: kontu hau oso garrantzitsua da. Ezin duzu neska tuntun bat bezala portatzen jarraitu. Gauza batzuk ez daude geure esku. Horrela dira, eta kito. Ezin ditugu aldatu.

Iritsi zen, bada, egun handia. Jende pila bat etorri zen herrialdera. Maisu matueek istorio eta kondairak kontatu zituzten egun osoan zehar. Eta, gaua iritsi zenean, sua piztu, eta, adi-adi, parte-hartzaile berriei begira jarri ziren. Esaten zuten matueek gazteei begietara begiratuta berehala jakiten zutela arranoaren espiritua zeinek zeukan.

Egun hartan, Yara oso goiz esnatu zen. Lorik egin gabe igaro zuen gau osoa, maisuak esandakoan pentsatuz. Bere zuhaitzik gogokoenaren adar batean eseri zen. Askok gustatzen zitzaion han goitik dena ikustea. Ez zuen xehetasunik galtzen.

Azken parte-hartzaileak bere ipuina kontatzen amaitu zuenean, txalo ugari jaso zituen, eta matueen epaimahaia biribilean jarri zen, azken erabakia hartzeko.





En Baina, orduantxe, Yara zutik jarri zen, eta, zuhaitzetik, inori ezer esan gabe azken hilabetean prestatu zuen istorioa kontatzen hasi zen.

Hasieran, jende guztia harrিতa zegoen, ez zekielako ipuina kontatzen ari zen ahotsa nondik zetorren. Yara ikusi zutenean, gizon batzuk besteak beste, Yararen aita eta maisua neska isilarazten saiatu ziren, gaizki jokatzeko ari zela pentsatzen zutelako, baina Yararen kontakizunak magikoa zirudien, eta, geldiarazten saiatu ziren arren, ezin izan zuten halakorik egin, ipuina entzuten liluratuta gelditu zirelako.

Yarak istorioa kontatzen amaitu zuenean, matue guztiak zur eta lur gelditu ziren. Inolako zalantzarik gabe, neska hura zen arranoaren espiritua zuena, ezin hobeto kontatu baitzuen ipuina. Gainera, jakintsuen begirada zeukan:

- Ez da posible! Ez da posible! Neska bat da! -esaten zuten denek.

Baina, orduan, matue guztien artean zaharrena, altxatu, eta Yararengana zuzendu zen:

- Arranoaren espiritua! Zatoz hona, eta egon gure artean, zu zaitugu-eta bilatzen genuena!

Inork ezin zuen gertatzen ari zena sinetsi.

Yara, zuhaitzetik jaitsi, eta, jendearen artean, matueengana joan zen. Denek harrিতa begiratzen zuten, hitzik esan gabe. Inor ez zen mugitu ere egiten. Bere bi anaia txikiak, ordea, ziztu bizian joan ziren arreba besarkatzera.

Maisuak, lotsatuta, makurtu egin zuen burua. Konturatu zen tradizioari garrantzi handiegia eman ziola, eta ez zuela Yararekin ondo jokatu. Baina Yarak bazekien tradizioak aldatzea ez dela batere erraza. Beraz, maisuaren ondotik igarotzean, keinu bat egin zion begiarekin, irribarrez.

Egun horretatik aurrera, familia askotan konturatu ziren ez zietela alabei haien ametsak betetzeko eragozpenik jarri behar, eta, nahi izanez gero, gizonek egiten zituzten gauzak egiteko aukera eman behar zietela.

Geroztik, askoz ere neska gehiago joaten gara eskolara. Orain, aukera daukagu zer izaten nahi dugun aukeratzeko; ez dugu imajinatzen ibili beharrik.

Yara nire amona zen. Bera izan zen gure herrialdeko lehenengo matue emakumea, eta berak zabaldu zigun bidea beste neska guztioi.

Berari esker nago Gazte Narratzaileen Nazioarteko Topaketa honetan. Eta zuek zarete bere istorioa ezagutu duzuen lehenak.

